

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2009

AGINDUA, 2024ko apirilaren 10ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita 2024ko ekitaldirako NPEPEn (2023-2027) aurreikusitako laguntzen deialdia nekazaritza- eta basogintza-alarreko ekoizleen elkarrekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkarrekin eta horien batasun edo federazioei buruzko urtarilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren jomuga zera da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzen duten nekazarien elkarrekin eta horien batasunak aitortzeko oinarritzko arauak eta betekizunak ezartzea, hain zuzen ere.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduak –zeinaren bidez ezartzen baitira estatu kideek nekazaritza-politika erki-dearen [Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtzaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LGENF) kontura finantzatzeko da politika komun hori], eta zeinaren medioz indargabetzen baitira 1305/2013 (EB) eta 1307/2013 (EB) erregelamenduak) funtsezko aldaketa dakar NPEn; hala, emaitza zehatzak lortzera bideratutako politika da orain NPE, zehazki, honako hiru helburu orokor hauekin lotutako emaitzak, hain zuzen: lehenik, epe luzera elikagaien segurtasuna bermatzeko duen nekazaritza-sektore adimendun, lehiakor, erresiliente eta dibertsifikatu bat sustatzea; bigarrenik, ingurumenaren babesa (biodibertsitatea eta klimaren aldeko ekintza barne hartuta) lagundu eta indartzea; eta hirugarrenik, Batasunaren ingurumen- eta klima-helburuak lortzen laguntzea –besteak beste, Parisko Akordioari jarraikiz hartutako konpromisoak– eta landa-eremuetako sare sozioekonomikoa indartzea.

Orientazio berri hori estatu kideen subsidiariorotasun handiagoaren gainean egituratzen da; izan ere, estatuak diseinatu beharko dituzte, egoera eta premia espezifikoetan oinarrituz, euren esku-hartze propioak. Ikuspegi berri horrekin, Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (NPEPE) landu da 2023-2027 epealdirako, eta haren helburua da nekazaritzaren, elikagaigintzaren eta landaguneen garapen jasangarria lortzea, gizartearen elikagai-segurtasuna bermatzeko sektore lehiakor baten eta landa-eremu bizi baten bidez. Plan estrategiko hori 2022ko abuztuaren 31n onartu zuen Europako Batzordeak, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez.

NPEPE horretan jaso dira bai lehen oinarriaren esparruan programatutako laguntza-arloko esku-hartzeak (zuzeneko eta sektoreko laguntzak, NBEFk finantzatutakoak), estatu mailan zuzenean aplikatutako direnak, bai bigarren oinarriko landa-garapenerako esku-hartzeak (LGENFk batera finantzatuta), maila autonomikoan inplementatu eta garatzen direnak, kasuan-kasuan ezarritako eskualde-berezitasunekin eta autonomia-erkidego bakoitzak lurraldean programatu dituen esku-hartzeen eta aurrekontuen arabera. Horren ondorioz, EAEn kasuan, NBEFko esku-hartze sektorialeak eta zuzeneko ordaintzen bidez egindako esku-hartzeek gain, landa-garapenerako 18 esku-hartze programatu dira (LGENF).

EAEn landa-garapenerako programatutako 18 esku-hartzeen artean, ekoizleen taldeentzako lankidetzak-laguntzen esku-hartze kofinantzatua dago (7191 esku-hartzea); esku-hartze horren jomuga horien kokapena hobetzea da balio-katean.

Horrela, Agindu honen bidez, NPEPEn (2023-2027) jasotako laguntzetarako deialdia egiten da 2024ko ekitaldirako, Programaren indarraldian aitortutako ekoizle-elkarrekin, bai eta

2024ko apirilaren 26a, ostirala

10/2018 Dekretuari jarraikiz jarduera edo prozesu berriak gauzatzeko jada aitortutako ekoizleen elkarreentzako laguntzetarako ere.

Agindu honen bidez egiten den deialdiko laguntzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2024rako, 2025erako eta 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude. Plan hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez onartu zen. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren webgunean dago argitaratuta (www.euskadi.eus), sailari eskainitako eremuaren barruan, eta «Planak eta proiektuak» atalean.

Laguntza-deialdi honek aurrekontu-estaldura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legeak baimendutako kredituen arabera.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Nekazaritza- eta basogintza-alorreko ekoizleen elkarreentzako laguntzak –NPEPEn (2023-2027) aurreikusiak– emateko 2024rako deialdiaren oinarriak onartzea. Agindu honen I. eranskinean jasota daude oinarriok.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 10a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

1. oinarria.– Xedea eta izaera.

Agindu honen xedea honako hau da: NPEPEn (2023-2027) jasotako laguntzen deialdia egitea 2024ko ekitaldirako, Programa horren indarraldian aitortutako nekazaritza- eta basogintza-alorreko ekoizleen elkarte edo erakundeak eta horien batasunak edo federazioak sortzeko, bai eta 10/2018 Dekretuaren arabera aitortutako ekoizle-elkarteentzako laguntzen deialdia egitea ere, laguntza horien helburua balio-katean nekazarien posizioa hobetuko duten jarduera edo prozesu berriak egitea izanik.

2.– Laguntza horiek –NPEPEren (2023-2027) 7191 esku-hartzearen esparruan biltzen direnak– VI. eranskinean zehaztutako Europako, Espainiako eta EAeko esparru juridikoaren eraginpean egongo dira.

2. oinarria.– Laguntza-lerroak.

Bi laguntza-lerro ezarri dira:

a) Nekazaritza- eta basogintza-alorreko ekoizleen elkarteak edo erakundeak eta horien batasunak edo federazioak sortzeko, baldin eta Programa horren indarraldian aitortzen badira.

b) 10/2018 Dekretuaren arabera jada aitortuta dauden elkarteek lankidetzeta-jarduera edo -proiektu berriak egiteko; zehazki, eragiketa hauek egin ahalko dira:

– Elkarte horietako kide diren ekoizleen ekoizpena eta emaitzak merkatuaren premietara egokitzea.

– Merkatuan, produktuak batera merkaturatzea, barne hartuta salmentarako prestatzea, salmenten zentralizazioa eta handizkariak hornitzea.

– Ekoizpenaren inguruko informazioari buruz arau komunak ezartzea, bereziki uztari eta presasunari erreferentzia eginez.

– Hondakinak kudeatzea, natura-baliabideak jasangarritasunez erabiltzea eta klima-aldaketa murriztea.

– Produktuak ekoizteko eta horien kalitatea hobetzeko laguntza teknikoa, baita kalitate-figurak dituzten produktuak garatzeko ere.

– Kudeaketa bideragarri baterako azalera elkartzea.

– Ekoizpen-ondasunak batera erostea.

– Ekoizleen erakundeek egin ditzaketen beste jarduera batzuk, esaterako, enpresa- eta merkatu-gaitasunak garatzea eta prozesu berritzaileak antolatzea eta erraztea (besteak beste).

3. oinarria.– Onuradunak eta baldintzak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan ahalko dira nekazaritza- eta basogintza-sektoreko ekoizleen elkarteak edo erakundeak eta horien batasun edo federazioak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkartei eta horien batasun edo federazioei buruzko urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren eta hori egokitzeke aginduen arabera aitortuta badaude.

2.– Gainera, oinarri honetan ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako inguruabar eragozleak ere jasotzen dituzte, bai eta honako hauek ere:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan izatea egoitza soziala.

b) Zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea. Baldintza hori bete beharko da hala entitate onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Beraz, alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

Betekizun hori bete dela egiaztatzeko, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoa kontuan hartuko da (Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoa), Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

c) Enpresak krisialdian ez egotea, estatuak krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

d) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko edo zehatzeko prozeduretako zenbateko zehatzen ordainketak, EAEko Administrazio Orokorrek eta haren mendeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, obligazio horiek ordainduta dituztela ulertuko da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakunderekin zorrik ez dutenean betetzealdiko dirulaguntzak itzultzeagatik edo, premia-mendu-bidea ezarri behar ez zaien pertsonen edo erakundeen kasuan, borondatezko aldi aurre egin gabeko zorrik ez dutenean. Halaber, betebeharraren ordainketak egunean dituztela ulertuko da zorrak atzeratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, zorra osoa estaliko duen bermea eratu bada, interesa eta gastuak barne hartuta edo, bestela, itzulketa-ebazpena aurkaratzeagatik haren etetea erabaki bada.

e) Ez izatea, ezein epai irmoren bidez, ez zigor ez kondena penal edo administratiborik –dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galarazten duenik–, eta ez izatea horretarako desgaitzen duen legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatik debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 23.2 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretu bidez onetsi zen horren testu bategina).

f) Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea ez betetzeagatik administrazio-bideko ebazpen irmo bidez ezein arau-hauste astun edo osotengatik zehatuta ez egotea, ebazpen hori bete arte eta, hala badagokio, erreparaziorako eta kalte-ordainerako dagozkion neurriak exekutatu izana.

g) Konkurtso-deklaraziorik ez eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota ez egotea, konkurtsoan deklaratu ez izatea, salbu eta horretan efikazia hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judzialaren eraginpean ez dagoela edo desgaitua ez izatea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

- h) Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzeko zigorrik ez izatea ezarrita.
- i) Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa ebatzita ez izatea.
- j) Pertsona fisikoek, merkataritza-sozietateen administratzaileek edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak, baldin eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legean, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean edo Kargu publikodunen jokatibide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aipatutako kasuren batean sartuta ez egotea edo Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsiak izatea, bertan ezarritako baldintzetan edo gai hori erregulatzen duen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.
- k) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso ez izana edo prebikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafiko, iruzur eta legez kanpoko ordainarazpenak edo hirigintza-delituak direla eta zigorra jaso ez izana.
- l) Erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea egoitza fiskala.
- m) Elkarteen kasuan, ez nahasita egotea horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan adierazitako debekuen kausetan. Eta zigor-arloko delituren bat egin duelako arrazoizko zantzuak egoteagatik inskribatzeko administrazio-prozedura eten ez izatea, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, dagokion erregistroan inskribatzeko ahala dagoela ziurtatzen duen ebazpen judizial irmoa eman ez bada.
- n) Berreskuratze-agindu baten menpe ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.
- o) Eskatutako dirulaguntza 30.000 eurotik gorakoa bada, merkataritza-eragiketetan beran-kortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdiak bete beharko ditu, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da hori, aginduaren VII. eranskinean jasotzen den bezalaxe.
- p) Sexu-bereizkeriagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez bete-tzeagatik zehapen administratibo edo penalik ez izatea, dagokien zehapenean ezarritako aldian. Halaber, laguntza eta dirulaguntzarik ezingo dute jaso 50 langiletik gora izanik estatu-araudiaren arabera indarrean beharko lukeen berdintasun-planik ez duten enpresek, ez eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresek ere.
- q) Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legean erabaki-organoetan ordezkartza orekatua izateari buruz ezarritako atalaseak betetzea.
- Erantzukizunpeko adierazpena faltsua bada, laguntza-eskabidea ukatu egingo da, eta, hala badagokio, otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuaren I. eranskinean aurreikusitako zigorrak aplikatuko dira (147/2023 Errege Dekretuaren bidez, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan jasotako esku-hartzeetan zigorrak aplikatzeko arauak ezartzen dira, eta 2023-2027 aldirako

Nekazaritza Politika Erkidea Espainian aplikatzearekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituzten errege-dekretu batzuk aldatzen dira).

3.– Era berean, honako berariazko betekizun hauek bete beharko dituzte elkarteek:

a) Tamainari begira, ezingo dute gainditu ETE kategoria, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioari jarraikiz.

b) Elkarteak bere elkartekideen ekoizpenaren zati bat merkaturatu beharko du, eta honako helburu hauetako bati lotuta egon beharko du:

– Elkarte edo erakunde horietako kide diren ekoizleen ekoizpena eta errendimendua merkaturaren eskarrietara egokitzea.

– Produktuak batera merkaturatzea, barne hartuta salmentarako prestatzea, salmenten zentralizazioa eta handizkariak hornitzea.

– Ekoizpenaren inguruko informazioari buruz arau komunak ezartzea, bereziki uztari eta pres-tasunari erreferentzia eginez; eta,

– Ekoizleen elkarteek egin ditzaketen beste jarduera batzuk, esaterako, enpresa- eta merkatu-gaitasunak garatzea eta prozesu berritzaileak antolatzea eta erraztea.

c) 5 urterako enpresa-plana aurkeztu beharko da, halaber, elkarte berriak sortu nahi badira, merkaturatze- eta fakturazio-aurreikuspenekin; baldintza hauek jaso beharko ditu plan horrek gutxienez:

– Erabiliko diren ekoizpen-arau komunak; programazioa, kalitate-sistemak eta, hala badagokio, erabiliko diren metodo ekologikoak edo praktika biologikoak zehaztu beharko dira.

– Ekoizpen-ezagutzarako arauak.

– Merkaturatze- eta informazio-arau komunak.

– Produktuetarako aurreikusitako negozio-zifra eta ekoizpen-bolumena (elkarteak produktu horietarako aitortpena eskatu badu).

– Diruz lagundu daitezkeen gastuen aurreikuspena.

– Honako konpromiso hauek:

• Edo merkaturatze-bolumenean edo bazkide kopuruan, lehenengo hiru urteetan % 10 haztea, eskabidea egin den urteko datu egiaztatuak aintzat hartuta.

• Edo merkaturatze-bolumenean edo bazkide kopuruan, lehenengo lau urteetan % 20 haztea, eskabidea egin den urteko datu egiaztatuak aintzat hartuta.

4.– Sortze, bat-egite edo integratzeagatiko laguntza jasotzen duten elkarteek ezingo dute laguntzarik jaso jarduera edo prozesu berriengatik.

4. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

b) Ilerroaren kasuan (lankidetzeta-jarduera edo -proiektu berriak egiteko laguntzak), diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko urriaren 31ra gauzatzen badira. Esate baterako, proiektu-gastuak (hauek barne hartuta: inbertsioak, ekipamenduak, patenteak, zerbitzuak, etab.).

Nolanahi ere, eskatutako laguntzaren xede den eragiketa ezin da amaituta egon laguntza-eskabidea egitean.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen erosketa-kostuak ezingo du inoiz gainditu merkatuko balioa.

Egindako gastutzat hartuko dira justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindu direnak (2024ko azaroaren 15ean amaituko da epe hori).

5. oinarria.– Finantzaketa eta emakida-prozedura.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak LGENF funtsak kofinantzatuko ditu (% 43 izango da laguntza-ehunekoa). 1.228.070,20 euro da agindu honi jarraikiz 2024ko ekitaldian zehar eman beharreko dirulaguntzen gehieneko bolumena; hona hemen kopuru horren emaitzak zein izango diren:

- 528.070,20 euro, LGENFren kargura, eta
- 700.000,00 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura.

Emango diren laguntzen zenbateko osoa ezingo da izan baliabide horiek baino handiagoa, ez eta baliabideok eguneratzean ateratzen den zenbatekoa baino handiagoa ere, indarrean dagoen legedia betez aurrekontu-aldaketak onartzen diren kasuetan. Igoera hori gertatzen den kasuan (hasieran aurreikusitakoaren % 20rainoko igoera), deialdia ebatzi aurretik gauzatu beharko da. Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez emango da horren berri publikoki, baina jakinarazpen horrek ez du esan nahi eskabide berrietarako eperik irekiko denik, ezta ebazteko epearen beste zenbaketa bat hasiko denik ere.

2.– Hona hemen lerro bakoitzeko bolumena:

– a) lerroa: 200.000,00 euro. Ildo horretan, ekoizleen elkartea sortu eta lehenengo 5 urteetan eman ahalko da laguntza, eta murriztuz joango da urtetik urtera. Hala, merkaturatutako urteko ekoizpenaren % 10 jasoko du lehenengo urtean erakundeak, eta haren % 6, berriz, azken urtean; gehenez 100.000 euro jasoko ditu eskatzaile bakoitzak.

– b) lerroa: 1.028.070,20 euro. Ildo horretan, jada existitzen diren ekoizleen elkarteen jarduera edo prozesu berrietarako emango da laguntza; zehazkiago, ekintza eta urte bakoitzeko 50.000 euroko gehieneko kostu unitarioa aplikatuz emango da; nolanahi ere, onartutako jardueren baturak ezingo du 100.000 eurotik gorakoa izan urtean. Deialdi honetarako, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko urriaren 31ra bitartean jarduera edo prozesu berrien garapenak eragindako gastuak hartuko dira kontuan.

Jarduera berrizat joko da, baldin eta 2.b) oinarrian aipatutakoen artean badago eta ez bada nekazaritza-ekoizleen elkarteen estatutuetan jasota daudenetako bat.

3.– Agindu honetan araututako laguntzak emateko prozedura lehia-araubidean egingo da. Espedienteak balorazio-irizpide hauen arabera puntuatuko dira:

- Jada eratuta eta aitortuta dauden ekoizleen elkarteen batasunen espedienteak: 20 puntu.
- Ekoizpenaren zati bat produktuaren edo prozesuaren kalitate-ziurtagirietara atxikita duten elkarreak: 10 puntu.
- Ekoizpen- edo eraldaketa-instalazioak dituzten elkarreak, Arreta Bereziko Eremuetan (ABE): 10 puntu.

2024ko apirilaren 26a, ostirala

– Gehiengoz emakumeak dituzten elkarteak: 10 puntu.

– Gehiengoz gazteak (<41 urte) dituzten elkarteak: 10 puntu.

Dirulaguntza jasotzeko, 10 puntu lortu beharko dira gutxienez.

4.– Baldin eta 1. apartatuan ezarritako zuzkidura osoa ez bada aski aurkeztutako eskabide guztietarako, puntuazio-berdinketa dagoen kasuan, honako lehentasun-irizpide hauek ezartzen dira:

– Jada eratuta eta aitortuta dauden ekoizleen elkarten batasunen espedienteak.

– 5 urterako negozio-planean produktuaren merkaturatze-bolumenik handiena aurreikusten duten espedienteak.

– Berdintasuna mantentzen bada, 5 urterako negozio planean bazkide kopuruaren eta/edo produktuaren merkaturatze-bolumenaren hazkunderik handiena aurreikusten duten espedienteek emango zaie lehentasuna.

5.– Lerro batean aurrekontu-soberakina badago, beste lerroan sartu ahalko da.

6. oinarria.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira fruta eta barazki-ekoizleen erakundeetarako laguntzekin, euren araudi espezifikoak arautuko baitituzte halakoak.

2.– Beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuek agindu honetan ezarritako xede bererako ematen dituzten laguntzak ere agindu honetakoekin bateragarriak izango dira, baldin eta dirulaguntzek, batzuk eta besteak gehituta, agindu honetan ezarritako mugak gainditzen ez badi-tuzte. Hala ere, bateraezinak izango dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak xede bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Laguntza guztien baturak esan-dako mugak gaindituz gero, agindu hau dela bide emandako laguntzari muga horretatik gorako kopurua kenduko zaio.

7. oinarria.– Laguntzak zenbatekoak diren.

1.– 2023-2027 aldian eratu eta aitortutako nekazaritza- eta basogintza-sektoreko ekoizleen elkarteak sortzeko laguntza honako hau izango da:

– Merkaturatutako ekoizpenaren balioaren % 10, lehenengo urtean.

– Merkaturatutako ekoizpenaren balioaren % 9, bigarren urtean.

– Merkaturatutako ekoizpenaren balioaren % 8, hirugarren urtean.

– Merkaturatutako ekoizpenaren balioaren % 7, laugarren urtean.

– Merkaturatutako ekoizpenaren balioaren % 6, bosgarren urtean.

Lehenengo urtean, ekoizleen elkarte edo erakundeko kideek elkartean edo erakundean sartu aurreko hiru urteetan merkaturatutako produkzioaren urteko batez besteko balioan oinarrituz kalkulata ordaindu ahal izango da ekoizleen elkarte edo erakundeentzako laguntza.

2.– Jarduera edo prozesu berriak egiten dituzten nekazaritza- eta basogintza-sektoreko ekoiz-leen elkarteetarako laguntza ekintza eta urte bakoitzeko 50.000 euroko kostu unitarioa aplikatuta emango da; onartutako jardueren baturak ezin izango du 100.000 euro gainditu urtean. Deialdi honetarako, 2024ko abuztuaren 1etik 2024ko urriaren 31ra bitartean jarduera edo prozesu berrien garapenak eragindako gastuak hartuko dira kontuan.

3.– Basogintza-sektoreko elkarteentzako laguntzen kasuan, neurriaren deskribapenean ezarritakoaz gain, estatu-laguntzei buruzko arauak aplikatuko dira, eta landa-eremuetan nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako estatuko laguntzei aplika dakizkiekeen EBko zuzentzarauen arabera emango dira (Batzordearen 2022/C 485/01 jakinarazpena).

4.– Ekoizleen elkarte edo erakunde bati 100.000 euro ordaindu ahalko zaizkio gehienez urtean.

5.– Agindu hau aplikatzearen ondorioetarako, merkaturatze-kanpaina dagokion produktuaren ekoizpen- eta merkaturatze-ziklo naturalari egokituko zaio.

8. oinarria.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Bitarteko elektronikoak erabilia aurkeztuko dira eskabideak, hurrengo apartatuan adierazitako helbide elektronikoaren bidez.

3.– Eskabideak izapidetzeko xehetasunak, eskabide-eredu elektronikoak, eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak euskadi.eus-en egoitza elektroniko hauetan eskura daitezke:

– http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/

– http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/

Eskabidea egin osteko izapideak helbide elektroniko honen bidez egingo dira: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> eta <http://www.euskadi.eus/micarpeta>

4.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, artikulu hauetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariaren: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikulua.

5.– Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartzen diren identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

6.– Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Legezko ordezkariaren ahalordetze-eskritturaren kopia.

b) Elkartearen estatutuen kopia.

c) Sozietateen gaineko zerga, eskabidea aurkeztu aurreko azken hiru ekitaldietakoa.

d) Legezko ordezkariaren ziurtagiria, eta, bertan, merkaturatutako ekoizpenaren bolumena eta balioa, eta erosketen eta gastuen kontabilitate-laburpenaren kopia.

e) Elkarte berriak sortzearen kasuan, agindu honen 3. oinarriko 3.c) apartatuan aurreikusitako enpresa-plana, laguntza eskatzen den lehen urtea bada, edo plan horretan hurrengo urteetan sartutako aldaketak, hala badagokio.

f) Jada aitortuta dauden eta lankidetzajarduera edo -proiektu berrietarako laguntza eskatzen duten elkarten kasuan, lankidetzaplan bat edo enpresa-plan bat aurkeztu beharko da, dirulaguntza eskatzea eragin duen jarduera bakoitza jaso eta zehaztuko duena, laguntza eskatzea eragin duten gastu guztien aurrekontuarekin edo proformako fakturarekin batera. Hiru aurrekontu inde-

pendente eta konparagarri aurkeztu beharko dira 40.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten obra-kontratuen kasuan, edo 15.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten hornidura- edo zerbitzu-kontratuen kasuan.

g) Bat-egite baten pareko efektua duten neurriak hartzeko erabakien kopia, hala badagokio.

h) Erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena. Administrazio- nahiz zigor-araudia- ren menpe geratuko da adierazpen hori, datu faltsuak eman ote diren egiaztatzeko honako alderdi hauei dagokienez:

– Laguntza-eskabidean egindako adierazpenak eta aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

– Proiektu horretarako eskabidea aurkeztu eta/edo laguntza jaso bada, gaur egunera arte, jakinarazi egin beharko da zein diren horiek eta zer zenbateko jaso diren; beste edozein laguntza jasoz gero horren berri emateko konpromisoa ere hartu beharko da.

– Bete egiten dituela deialdi-agindu honetan eskatutako betekizunak, eta ez duela gainditzen ETE kategoria, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren arabera.

– Konpromisoa hartzen duela laguntza emateko eta ordaintzeko kondizioak eta eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazio guztia Eusko Jaurlaritzaren, Europako Batzordearen edo dagozkion kontrol-organoen esku jartzeko.

– Konpromisoa hartzen duela baldintza eta eskakizun horiek betetzen jarraitzeko, adierazpen hau aurkezten denetik deialdia ebatzi eta emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte.

– Konpromisoa hartzen duela adierazitako inguruabarretan gerta litekeen edozein aldaketa jakinarazteko, emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte.

– Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion legezko debekurik, sexu diskriminazioagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

– Ez dela kondenatua izan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

– Ez duela eskatu borondatezko konkurtsoaren deklaraziorik, prozeduraren batean kaudimengabetzat ez dela jo, konkurtsoan deklaratusa ez dagoela –salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek–, esku-hartze judizialaren pean ez dagoela edota ez dutela desgaitu Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu ez bada.

– Ez duela administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik eragin, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu dutelarik.

– Ez dagoela honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide

Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

– Egoitza fiskala ez duela araudiaren arabera zerga-paradisua gisa sailkatutako ezein lurralde edo herrialdetan.

– Ebazpen irmo baten bitartez ez duela galdurik dirulaguntzak jasotzeko aukera, betiere bat etorri legez honekin edo halakorik ezartzen duten beste batzuekin. Zehazki, ez dutela zehatu –zigor- edo administrazio-bidean– sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik. Halaber, zera adierazten du, Espainiako araudiaren arabera berdintasun-plan bat izatera behartuta egonez gero, baduela halako plan bat eta, enpresak 50 langile baino gehiago izanez gero, gainera, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri izana egiazta dezakeela, Espainiako legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoari jarraikiz.

– Ez dagoela zehatuta, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik, eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

– Hala badagokio, bete duela desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den kuota, eta ez duela egiaztatu hori bete dadin neurri alternatiboak abian jarri izana.

– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dituela.

– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.p) artikuluari jarraikiz, enpresa-deslokalizazioan ez erortzeko konpromisoa hartzen duela, aipatutako legearen 49. artikulua arabera.

i) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.3 bis artikuluan ezarritako ordainketa-epealdiak betetzeari buruzko baldintza egiaztatzeko dokumentazioa, agindu honen VII. eranskinean horri buruz ezarritakoari jarraikiz.

j) Foru-ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeari dagokionez, dirulaguntza eskatzean, eskatzaileak baimena emango dio organo kudeatzaileari horien egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez zuzenean egiteko. Hala ere, eskatzaileak baimen hori berriaz uka dezake, baina, kasu horretan, adierazitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

7.– Sortu berri diren taldeen kasuan, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: negozio-plan enpresarialean aurreikusitako urteko fakturazioa, edota elkarte edo erakundeant sartu aurreko hiru urteetan merkaturatutako ekoizpenaren urteko batez besteko balioa, 7. oinarriko 1. apartatutan aurreikusitakoaren arabera; eta 2021-2022 ekitaldian benetan merkaturatutako ekoizpen-bolumena eta ekoizpenaren balioa.

8.– Jada aitortutako elkarteen kasuan, ekoizpen-bolumena eta 2021-2022 ekitaldian benetan merkaturatutako ekoizpenaren balioa.

9.– Edozein administrazioari lehendik aurkeztutako agiriak edo administrazioak berak emandakoak ez dira berriz aurkeztu beharko. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu zituen agiri horiek.

10.– Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinarazi egingo zaio hamar eguneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko diren agiriak eransteke. Halaber, adierazi egingo zaio hori egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria ebazpena eman ondoren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

11.– Edonola ere, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak, eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko, beharrezkotzat jotzen dituen bestelako argibide edo agiri osagarriak eskatu ahalko dizkio elkarte eskatzaileari. Agindu honetan espresuki xedatu gabekoetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

9. oinarria.– Laguntzen kudeaketa eta ebazpena.

1.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza da laguntza hauek kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta baloratzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da, honako hauez osatua: Elisa Torre-Enciso Enciso, Nerea Martínez Pérez eta Amaya Jalón Ayala; aipatutako lehenengoa izango da batzordeburua, eta azkena, berriz, idazkaria. Beharrezkoa izanez gero, honako ordezkari hauek izendatuko dira, hurrenez hurren: María Luisa Fraile Correa, Yon Loinaz Mariezkurrena eta Nora Beltrán de Otálora Errasti.

3.– Balorazio Batzordearen egitekoak hauek izango dira:

a) Aurkezten diren eskabide guztiak aztertzea, eta aplikatu beharreko araudia betetzen dutenak eta araudia betetzen ez dutenak bereiztea. Baztertutako horien zerrenda egingo du, eta banan-banan azalduko du zein izan den baztertzeko arrazoia.

b) Araudia betetzen duten eskabideak ebaluatzea, laguntzen irizpide objektiboen eta kuantifikazioaren arabera.

c) Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoari buruzko txostena bat egitea. Txosten hori behar bezala justifikatu eta arrazoitu beharko da.

Batzordeak bere funtzionamendu-arauak ezar ditzake, eta, arau horiek aurreikusten ez dituzten gaitan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18.era bitartean xedatutakoa aplikatuko da.

4.– Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamen bat emango du. Proposamen horretan, dirulaguntza zein erakunde eskatzaileari ematea proposatzen den eta dirulaguntza hori zenbatekoa den adierazi beharko da.

Gainera, dirulaguntzak emateko espedientean organo kudeatzailearen txostena egongo da, eta txosten horretan jasota geratuko da organo kudeatzailearen esku dagoen informazioaren arabera entitate onuradunek baldintza guztiak betetzen dituztela dirulaguntzak jasotzeko.

5.– Prozeduran entitate interesdunek adierazitakoez bestelako egitateak, alegazioak eta frogak ageri badira, edo halakorik kontuan hartzen bada, ebazpen-proposamen hori behin-behinekoa izango da, eta entitate interesdunei jakinarazi beharko zaie (10 eguneko epea emango zaie entitate interesdunei alegazioak aurkezteko). Alegazio horiek aztertuta, behin betiko ebazpen-proposamena formulatuko da.

6.– Entzunaldi-izapidea albo batera utz daitekeen kasuetan –ez dagoelako entitate interesdunek adierazitakoez bestelako egitaterik, frogarik edo alegaziorik–, oinarri honen beraren 3. apartatuaren arabera emandako ebazpen-proposamenak behin betiko izaera izango du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

7.– Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeari dagokio deialdia ebazpen bakar baten medioz ebaztea. Ebazpen horretan, eskatutako laguntzak eman edo ukatuko dira.

8.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

A) Aintzat hartutako eskabideei dagokienez:

- i) Entitate onuradunaren izena edo sozietatearen izena eta IFK.
- ii) Diruz lagundu daitekeen inbertsioa.
- iii) Diruz lagundutako zenbatekoa.
- iv) Diruz lagundutako jarduketak egiteko epea.
- v) Jasotako dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.
- vi) Ordaintzeko modua eta epealdiak.
- vii) Zer xedapeni jarraikiz eman den laguntza.
- viii) Dirulaguntzaren oinarri arautzaileek eskatzen dituzten gainerako baldintza eta eskakizunei buruzko informazioaren ordez, deialdiaren esteka eta haren oinarriak jarriko dira egoitza elektronikoan.

B) Baztertu diren eskabideei dagokienez:

- i) Entitate onuradunen izen soziala eta Identifikazio Fiskaleko Kodea.
- ii) Eskabidea ez onartzeko arrazoiak.

9.– Ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epealdi horretan berariazko ebazpenik izan ezean, interesdunek eskabideak ezetsi direla ulertu beharko dute, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

11.– Ebazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko 1. apartatuko b) letran ezarritakoaren arabera, EHAAn argitaratuko da, eta argitalpen hori jakinarazpentzat joko da. Dena dela, interesdun guztiei ebazpen osoa helaraziko zaie, eta, gainera, ebazpenean interesdun bakoitzari berariaz eragiten dioten alderdiak identifikatuko dira.

12.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak laguntza emateko edo ukatzeko emandako ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko dio entitate interesdunak ekonomiaren garapen, jasangarritasun eta ingurumenaren arloan eskumena duen saileko titularrari, hilabeteko epean, ebazpen-jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edo dozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluari jarraikiz.

10. oinarria.– Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Ordainketak egiteko, eskabidea egin eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da alde zuzenetik (hurrengo apartatuetan zehazten da zer dokumentazio aurkeztu beharko den); hala ere, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikariek proiektua gauzatzeko kontrola egin ondoren gauzatu diren ordainketak. Ziurtagiri hori ordainketa-eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko epean egin beharko da beranduenez.

2.– 2023-2027 aldiaren sortu berri diren ekoizleen elkarteek memoria zehatu bat aurkeztu beharko dute 2025eko ekainaren 30a baino lehen. Memoria horretan, ekoizleen elkarteek dagokion kanpainan edo urtean egindako jardueren laburpena jasotzeko beharko da, eta berariaz adierazi beharko dira ekoizpen- eta merkaturatze-bolumena, bazkideen alden eta baje mugimendua, negozio-zifra, balantzea eta emaitza-kontuak (enpresa independente batek behar bezala ikuskatuak behar dute horiek).

3.– Jada aitortuta dauden eta jardueraren edo prozesu berriak gauzatzeko laguntzak eskatzen dituzten ekoizleen elkarteek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Exekuzio-memoria baloratua, merkataritza-/enpresa-planeari jasotako proiektu eta jardueren exekuzioarekin lotutako kostuen zerrendarekin, bigarren oinarriko b) apartatuan jasotako ekintzak barne hartzen dituen;

– Gastuak frogatuko diren faktura eta frogabaliokidea duten gainerako dokumentuen bitartez, baliozkoak direnean merkataritzako trafikoko juridikoan, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak. Gastuak kontu-ikuskaritzako txostenaren bidez ere egiaztatuko dira.

– Entitate onuradunaren deklarazioa, zeinaren bidez jasota geratuko baita ez duela eskatu edo jasotako inbertsio bererako beste laguntzarik, eta ez dagoela sartuta dirulaguntzak itzultzeko inolako prozesutan.

4.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean jasota egon beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

Dirulaguntzaz gain funts propioak edo bestelako dirulaguntza edo baliabideak erabiltzen direnean jarduerak finantzatzeko, funts horien zenbatekoa eta jatorria egiaztatuko beharko dira justifikazioan, baita diruz lagundutako jardueretan nola erabili diren ere. Horretaz gain, jasotako funtsek sorrarazten dituzten finantza-etekinak egiaztatuko egin beharko dira, halakorik egonez gero.

5.– Dirulaguntzaren ordainketa ezingo da egin baldin eta onuradunak ez baditu ordaindu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta, orobat, itzulketa-ebazpen bat dela medio, zorduna bada.

11. oinarria.– Entitate onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituztenek, betiere, honako betebeharrak izango dituzte:

a) Laguntza zertarako eman den, helburu horretarako erabiltzea.

b) Emandako dirulaguntza onartzea. Horri dagokionez, baldin eta dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunetan entitate onuradunak ez badiote berariaz uko egiten dirulaguntza horri, onartu egiten dutela ulertuko da.

c) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren esku jartzea beharrezko dokumentazio guztia.

d) Administrazio baten edo erakunde publiko zein pribatu baten beste laguntza edo dirulaguntzaren bat lortuz gero helburu bera betetzeko, horren berri ematea idatziz Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari.

e) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintza nola objektibo hala subjektiboren bat aldatuz gero, horren berri ematea idatziz Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari.

f) Entitate onuradunaren betebeharra organo kudeatzaileak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste kontrol-organo batek eskatutako informazio guztia emateko, baldin eta, finantzaketa dela-eta, dirulaguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eginkizunak gauzatzen badituzte.

g) Entitate onuradunaren betebeharra, enpresa-deslokalizaziorik ez gauzatzeko konpromisoa adieraztekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluari jarraikiz.

h) Dirulaguntzaren xede diren inbertsio guztietan –bai eta haiei buruz egiten den informazio edo publizitate guztian ere–, finantzaketaren izaera publikoa agerian eta modu nabarian jasotzeko betebeharra: alde batetik, LGENFren funtsekin (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 [EB] Erregelamenduaren 50. artikuluari jarraikiz), eta bestetik, Eusko Jaurlaritzaren funtsekin (Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan –abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretu bidez araututakoan– eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera).

i) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

j) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez badira betetzen, eskuratutako funtsak itzuli egin beharko dira.

12. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetako bat aldatuz gero edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batek beste laguntza edo dirulaguntzaren bat emanez gero, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio idatziz, gertatu bezain laster, eta baliteke horren ondorioz dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, baldin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan ezarritako eta Agindu honekin adierazitako betekizunak betetzen badira. Horretarako, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak behar den aldaketa-ebazpena emango du, eta, bertan, dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doituko dira; horretarako, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25.2 artikuluan ezarritako prozedura aplikatuko da.

Dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat jaso badu onuradunak eta aldaketaren ondorioz dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu behar bada, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

13. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

Entitate eskatzaileek atzera egin ahalko dute, betiere laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, atzera egiteko eskabidea helarazi beharko diote Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskabidea, eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

Entitate onuradunak uko egin ahalko dio laguntzari; horretarako, nola emandako laguntzari hala laguntza osoa edo haren zati bat kobratzeko eskubideari uko egiteko idazkia aurkeztu beharko du. Uko-egite hori Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak onartu beharko du ebazpen bidez, eta amaitutzat emango du horretarako prozedura.

14. oinarria.– Ez-betetzeak eta dirua itzultzea.

1.– Erakunde edo entitate onuradunek ez badituzte betetzen agindu honetan ezarritako betekizunak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritako kasuetarako finkatutakoa edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak, jasotako zenbatekoa osorik edo partzialki itzuli beharko dute, baita dagozkion berandutze-interesak ere, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

2.– Ekoizleen elkarte sortu berrietarako 2023-2027 aldiko laguntzen kasuan, onuradun izateko baldintzak edo onuradunaren betebeharrak ez betetzeak laguntza osoa galtzea ekarriko du berekin.

3.– Jada aitortuta egonik jarduera edo prozesu berriak gauzatzeko laguntzak eskatzen dituzten ekoizleen elkarteentzako laguntzen kasuan, onuradun izateko baldintzak edo onuradunaren betebeharrak ez betetzeak laguntza osoa galtzea ekarriko du berekin.

Ez-betetzeak laguntza jasotzea eragin zuten jarduketetako gutxienez bat partzialki gauzatzeari bakarrik eragiten badio, baina erabateko ez-betetzetik oso gertu badago edo konpromisoak betetzera jotzen duen jarduketa bat gauzatzeko asmoa egiaztatzen bada, itzulketa egin ez den edo aldatu den eta onartu ez den zatiarekiko proportzionala izango da.

4.– Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

2024ko apirilaren 26a, ostirala

II. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA 2024 - A)

Nekazaritza- eta basogintza-alarreko ekoizleen elkarteentzako laguntzak, NPEPEn (2023-2027) aurreikusiak

A) lerroa: nekazaritza- eta basogintza-alarreko ekoizleen elkarteak edo erakundeak eta horien batasunak edo federazioak sortzeko laguntzak

Izen-abizenak:

NAN zenbakia:

Honen ordezkari:

Elkartea:

IFZ/IFK: Kalea eta zenbakia:

Telefonoa: Faxa: Helbide elektronikoa:

Udalerria: (Lurraldea): PK:

Jarduera-sektorea:

Harremanetarako pertsona: Tel.:

Honako laguntza hauek eskatzen ditu:

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak, NPEPEn (2023-2027) aurreikusitakoa aplikatuz, zehazki, a) lerrokoak, nekazaritza- eta basogintza-alarreko ekoizleen elkarteak edo erakundeak eta horien batasunak edo federazioak sortzekoak.

Adierazi du merkaturatze-kanpaina honetan emaitza hauek lortu direla:

Produktua	Ekoizpen-bolumena	Merkaturatutako ekoizpenaren balioa

2024ko apirilaren 26a, ostirala

Enpresa-plana

	1. urtea		2. urtea		3. urtea		4. urtea		5. urtea	
	Bazkide zk.	Negozio-bolumena	Bazkide zk.	Negozio-bolumena	Bazkide zk.	Negozio-bolumena	Bazkide zk.	Negozio-bolumena	Bazkide zk.	Negozio-bolumena
Aurreikusitakoa										
Benetakoa										

EGUNA ETA LEGEZKO ORDEZKARIAREN IZENPEA

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak jakinarazten dizu inprimaki hau betez eman dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, prozesatzeko. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen denez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzara idazkia bidali beharko duzu, hura baita zure datuak tratatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.

2024ko apirilaren 26a, ostirala

III. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA 2024 – B)

Nekazaritza- eta basogintza-alorreko ekoizleen elkarreentzako laguntzak, NPEPEn (2023-2027) aurreikusiak

b) lerroa: 10/2018 Dekretuaren arabera jada aitortuta dauden elkarreentzako laguntzak lankidetzazko jarduerak edo proiektu berriak egiteko laguntzak.

Izen-abizenak:

NAN zenbakia:

Honen ordezkari:

Elkarre:

IFZ/IFK: Kalea eta zenbakia:

Telefonoa: Faxa: Helbide elektronikoa:

Udalerrria: (Lurraldea): PK:

Jardueraz-eremua:

Harremanetarako pertsona: Tel.:

Honako laguntza hauek eskatzen ditu:

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak, NPEPEn (2023-2027) aurreikusitakoa aplikatuz, zehazki, b) lerrokoak, 10/2018 Dekretuaren arabera jada aitortuta dauden elkarreentzako laguntzak lankidetzazko jarduerak edo proiektu berriak egiteko.

Adierazi du merkaturatze-kanpaina honetan emaitza hauek lortu direla:

Produktua	Ekoizpen-bolumena	Merkaturatutako ekoizpenaren balioa

2024ko apirilaren 26a, ostirala

Dirulaguntza eskatzea eragin duen jarduera bakoitza jasotzen eta zehazten duen lankidetzaren plana edo enpresa-plana.

EGUNA ETA LEGEZKO ORDEZKARIAREN IZENPEA

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak jakinarazten dizu inprimaki hau betez eman dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, prozesatzeko. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen denez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzara idazkia bidali beharko duzu, hura baita zure datuak tratatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.

IV. ERANSKINA

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskabide-dokumentua.
- Legezko ordezkariaren ahalordetze-eskritura.
- Elkartearen estatutu erregistratuak
- Sozietateen gaineko zerga, eskabidea aurkeztu aurreko azken hiru ekitaldiei dagokiena.
- Legezko ordezkariaren ziurtagiria, laguntza-eskabidea aurkeztu aurreko urteari dagokiona, merkaturatutako ekoizpenaren bolumena eta balioa jaso beharko dituen.
- Elkarre berrien kasuan, agindu honen 3. oinarriko 3.c) apartatuan aurreikusitako enpresa-plana, laguntza eskatzen den lehen urtea bada, edo plan horretan hurrengo urteetan sartutako aldaketak, hala badagokio.
- Aitortutako elkarre kasuan, 7.6.f) oinarrian aurreikusitako dirulaguntza eragin duen jarduera bakoitza jasotzen eta zehazten duen lankidetz-plana edo enpresa-plana, laguntza eskatzea eragin duen gastu guztien aurrekontuarekin edo proformako fakturarekin batera. Hiru aurrekontu independente eta konparagarri aurkeztu beharko dira 40.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten obra-kontratuen kasuan, edo 15.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten hornidura- edo zerbitzu-kontratuen kasuan.
 - Bat-egite baten pareko efektua duten neurriak hartzeko erabakien kopia, hala badagokio.
 - Erantzukizunpeko adierazpena, V. eranskineko ereduaren arabera.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan ezarritako ordainketa-epealdiak betetzei buruzko baldintza egiaztatzeko dokumentazioa, VII. eranskinean azaldutakoari jarraikiz.

2024ko apirilaren 26a, ostirala

V. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, BALDINTZAK BETETZEARI ETA DIRULAGUNTZAREN ONURADUN IZATEKO DEBEKURIK EZ IZATEARI BURUZKOA

Izen-abizenak: _____ NAN zk.: _____

Erakunde eskatzaile honen ordezkari gisa: IFK: _____

HAU DEKLARATZEN DU:

a) Laguntza-eskabidean adierazitakoa egia dela, eta eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak benetakoak direla; faltsutasunik edo datu okerrik azalduz gero, erantzukizun osoa bere gain hartuko duela; eta ez duela alegatuko faltsutasun edo datu oker horiek eragin dituzten gertaerak ez zituela ezagutzen.

b) Honako eskabide honetaz gainera, behean ageri diren erakunde publikoei edo pribatuei laguntza eskatu diela, edo haien laguntza jaso duela proiektu honetarako; eta, gainera, konpromisoa hartzen duela aurrerantzean ere proiektu honetarako aurkezten dituen laguntza-eskabide guztien berri emateko:

Eskabide-data	Erakundea	Programa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza

c) Batzordeak 2003ko maiatzaren 6an emandako 2003/361/EE Gomendioaren arabera, deialdi-agingidu honetan eskatutako baldintzak betetzen dituela eta ETE kategoria gainditzen ez duela.

d) Konpromisoa hartzen duela beharrezko agiri guztiak Eusko Jaurlaritzaren, Europako Batzordearen edo kontrol-organoen esku jartzeko, laguntza eman eta ordaintzeko baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatze aldera.

e) Konpromisoa hartzen duela baldintza eta betekizun horiek betetzen jarraitzeko, adierazpen hau aurkezten denetik deialdia ebatzi eta emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte.

f) Konpromisoa hartzen duela adierazitako inguruabarretan gerta daitekeen edozein aldaketa jakinarazteko, emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte.

g) Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion legezko debekurik, sexu diskriminazioagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

h) Ez dela kondenatua izan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

i) Ez duela eskatu borondatezko konkurtsoaren deklaraziorik, prozeduraren batean kaudimengabetzat ez dela jo, konkurtsoan deklaraturik ez dagoela –salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek–, esku-hartze judizialaren pean ez dagoela edota ez dutela desgaitu Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian

2024ko apirilaren 26a, ostirala

ezarritako desgaiakuntza-aldia amaitu ez bada.

j) Ez duela administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik eragin, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu dutelarik.

k) Ez dagoela honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

l) Egoitza fiskala ez duela araudiaren arabera zerga-paradisu gisa sailkatutako ezein lurralde edo herrialdetan.

m) Ez duela galdurik, ezein ebazpen irmoren bitartez, dirulaguntzak jasotzeko aukera, betiere lege honi edo halakorik ezartzen duten beste batzuei jarraikiz. Zehazki, ez dutela zehatu —zigor- edo administrazio-bidean— sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik. Halaber, zera adierazten du, Espainiako araudiaren arabera berdintasun-plan bat izatera behartuta egonez gero, baduela halako plan bat eta, enpresak 50 langile baino gehiago izanez gero, gainera, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri izana egiazta dezakeela, Espainiako legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoari jarraikiz.

n) Ez dagoela zehatuta, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik, eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

o) Hala badagokio, bete duela desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den kuota, eta ez duela egiaztatu hori bete dadin neurri alternatiboak abian jarri izana.

p) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dituela.

q) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.p) artikuluari jarraikiz, enpresa-deslokalizazioan ez erortzeko konpromisoa adierazten duela, aipatutako legearen 49. artikuluaaren arabera.

Lekua: _____ . Data: 2024ko _____

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren sinadura eta zigilua

OHARRA: Erantzukizunpeko adierazpena faltsua bada, laguntza-eskabidea ukatu egingo da, eta, hala badagokio, otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuaren I. eranskinean aurreikusitako zigorrak aplikatuko dira (147/2023 Errege Dekretuaren bidez, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan jasotako esku-hartzeetan zigorrak aplikatzeko arauak ezartzen dira, eta 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidea Espainian aplikatzearekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituzten errege-dekretu batzuk aldatzen dira).

VI. ERANSKINA

PROZEDURA HONI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA ARAU HAUEK
EZARRITAKOA DA

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua.
- 1046/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) gobernantza arautzen duena.
- 1047/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruko esku-hartzeak eta beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duena.
- 1049/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaz ezartzen baita zer arau erabiliko diren Nekazaritza Politika Erkidearen esparruko laguntzen onuradunek bete behar dituzten baldintza sozialak eta indartuak aplikatzeko, baldin eta zuzeneko ordainketak, landa-garapenerako urteko ordainketa jakin batzuk eta Urrun eta Uharteetan egoteagatiko Aukera Espezifikoen Programaren ordainketak (AEPO) jasotzen badituzte.
- 147/2023 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan jasotako esku-hartzeetan zigorrak aplikatzeko arauak ezartzen baitira, eta 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidea Espainian aplikatzearekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituzten errege-dekretu batzuk aldatzen baitira.
- 8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuarena.
- 10/2018 Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteei eta horien batasun edo federazioei buruzkoa.
- Agindua, 2022ko martxoaren 10ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-bolumena, eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua ezartzen baitira, Nekazarien elkarte eta haien batasun gisa aitortua izateko oilo-arrautzen sektorean.
- Agindua, 2022ko maiatzaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-kopurua eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua, nekazarien elkartearen eta haren batasunen erremolatxaren sektoreko izendapena jasotzeko.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. (APEL).
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (SPAJL).
- 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa (DAEL).
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa (DLO).
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azken horren Erregelamendua onartzen duena (DLOE).

VII. ERANSKINA

DIRULAGUNTZEI BURUZKO AZAROAREN 17KO 38/2003 LEGE OROKORRAREN 13.3 BIS
ARTIKULUAN EZARRITAKO ORDAINKETA-EPEAK BETETZEARI BURUZKO BALDINTZA
EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA

Onuradunaren edota entitate lankidearen kondizioa izateko, merkataritza-eragiketetan berandutzaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatzen zaien pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publikoko erakundeak ez beste guztiek), irabazteko asmoa duten heinean, egiaztatu egin beharko dute Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis apartatuan xedatutakoari jarraikiz bete dituztela ordainketa-epealdiak.

Ezarritako betetze-maila egiaztatzeko, honako aukera hauek izango dituzte interesdunek:

a) Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-mailara iritsi direla adierazten duen ziurtagiria aurkez dezakete, ordezkaritza-ahal nahikoa daukan administrazio-organoak edo haren balioakideak sinatuta.

Horrez gainera, ondoko b) letran ezartzen diren frogabideak ere erabil ditzakete hori egiaztatzeko, beren araudia betez gero.

b) Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoek hauetako bat aurkez dezakete:

1. Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek sinatutako ziurtagiria, zeinean banakatuta agertzen baita ikuskatutako azken urteko kontuen memorian azaltzen diren ordainketei buruzko informazioa, baldin eta kontu horien arabera abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-mailara (apartatu honetan ezartzen dena) iristen bada, uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duenak, hirugarren xedapen gehigarrian eskatzen den informazioaren arabera.

Ziurtagiri hori hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte baino ez dira izango baliozkoak.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria ezin bada egin, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek egindako «Adostutako prozedurei buruzko txostena», zeinaren bidez, erreferentziak data batean sozietatearen hornitzaileei ordaindu gabe dauden fakturen lagin adierazgarria berrikusita, ondorioztatzen baita abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdiak bete direla, inolako salbuespenik gabe, edo, salbuespenak antzemanaz gero, apartatu honen azken paragrafoan eskatzen den betetze-mailara iristea eragozten ez dutela.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren ondorioetarako, ordainketa-epealdiak betetzeko baldintza bete dela ondorioztatuko da, baldin eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-maila Enpresen sorkuntzari eta hazkundeari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) letraren bigarren apartatuan ezartzen den ehunekoak bada gutxienez.